

“Sólo un temblor / Dardara”

Pello Irazu

2019ko abe 20 - 2020ko mar 7

CarrerasMugica

Dardara

Aldaketaren,
Mugimendu baten,
Mundu baten berriemaile.

Lurrikara baten
Edo
aldaketa organiko baten berriemaile

Zer da dardara eskulturan
Ikaraundi
Edo
Terremoto in palazzo?

Trazu zalantzatia da, eria ...
Efektu / afektua da, men egiten diona ...
Eskuen dardarari
Trembling,
shaking,
shiver.

Dardara

Azken hogeita hamar urteetako Pello Irazuren iharduerak eskulturaren arazoei modu erabat irekian heltzea du ezaugarri, arlo materialean, formatu, material eta gailu ugarietz gain, grafikotzat hartzen diren espresibideak ere erabili izan dituena, nola marrazkia –bere kontzeptu zabalenean- hala pintura murala. Bestalde, errealitatearen erreferentzi, zeharkako aipamen edo apelazioen eremuan-berau osatzen duten irudikapen multzoari dagokionez-, zeinu material, plastiko, eta gizarte arloko gainerako zeinuen arteko joan-etorriez gainezka dago bere lana. Bi kasu horietan, bere espresibide ugariaren berezko dimentsioak, beti ere esparru eskultorikoari dagokiolarik, dimentsio ugari dituen harremanen espazio baten kontzentrazioa baino ez dira.

2019an zehar egindako hainbat eskultura eta marrazki biltzen ditu erakusketa honek, eta baita 1989ko bi marrazkitatik eratorritako bi horma-irudi ere. L1 anamorfosi handi baten gisan zabaltzen da horman, eta L3 berriz, bere jatorrizko formak bigunduz, horma-irudiaren izaera birtuala zalantzan jartzen duen gorputz bihurtzen da. Biak ala biak saiatzeko dira erakustokiaren arkitektura zehatz eta funtzionala zalantzan jartzen.

Horma-irudiek haien ingurunea jaso, zatitu eta berrantolatzen dute.

Eskulturek lekua hartzen dute.

80ko hamarkadan eskulturaren panoramara heldu zenetik, presentzia, materiala, kolorea, azalera, eskala eta pertzepzioa izan dira Irazuren lanaren gakoetako batzuk, eta lan berrietan ere presente daude ideia horiek. Hasieran burdinean eta egurrean garatu zen nagusiki bere eskultura, gero kontratxapatuak ordezkatu zituen, eta galdatutako elementuek ondoren. Euskarri horietako edozeinen gainean jarritako pinturak eta materialak, bere obraren izaera hibrido eta objektuala azpimarratzen zuen, beti izan baita hala, bere ibilbideko denboraldi ezberdin guztietan.

Eguno eskulturak, erlazio formal eta materialen kadentzia eta keinuen kolpea uztartuz, prozesuko momentu ezberdinetan antolatzen dira, momentu horiek euren buruari buruz dena dioten fase tenporal modura funtzionatzen dutelarik. Hala, aldagarri den eskulturgintza bati buruz ari gara, non iragana eta etorkizuna irudi bezala gorpuzten diren.

Prozesuko zarata isilduko duen eta aukera anitzen arteko muga lausotuak argi eta zehatz bihurtuko dituen oreka zehatza topatzea da lanaren gakoetako bat.

Hain zuzen, ezagunak ditugun objektuen presentziak eta bolumen soldatu eta galdatuek garapen konplexuagoa dute keinuaren eta lausotasunaren aldetik. Zehaztugabetasunak eta lausotasunak presentzia handiagoa duten espazio askeagoei esker gauzatzen da, neurri handi batean, forma zehaztua dirudien hori.

Irazuren eskultura berriak zehaztasun formalekoak dira, gainjarritako aukera bisualen pilaketazkoak, xehetasun mutantedunak eta garapen ia geologikozkoak, non krisia iragartzen duen dardara baten moduan, barne keinuen gehiketak gauzatzen duen kanpoaldeko geruza ikusgarria.

Pello Irazu (Andoain, 1963) Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziatu zen UPV-EHU-n, 1988an ICARO saria jaso zuen eta Fullbright beka 1990ean. Urte horretan bertan, Veneziako Bienaleko Aperton parte hartzeko aukeratua izan zen. Bere obra honako bildumetan dago, besteak beste: MACBA, La Caixa Fundazioa, Mumok (Viena), Reina Sofía Museoa, Patio Herreriano Museoa, CA2M eta Marugame Hirai Museoa (Japonia). 2017an atzera begirako erakusketa egin zion Guggenheim Bilbao Museoa.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Mutante II, 2019
Kontraxapatua, soldatutako aluminiozko elementuak eta pintura. 53 x 37 x 28 cm.



Mutante I, 2019
Galdatutako eta soldatutako aluminiozko elementuak, egurra eta pintura. 45 x 35 x 29 cm.



Ikuspegi orokorra



Dardara (interior), 2019

Burdina, egurra, galdatutako eta soldatutako altzairu herdoilgaitzezko elementuak eta pintura. 46 x 63 x 32 cm.



Sólido I (bunny), 2019
Aluminio eta pintura. 40 x 30 x 5 cm.




Ikuspegi orokorra



Abecedario III, 2019
Pintura eta collage paper gainea. 65 x 50 cm.



Abecedario I, 2019
Pintura eta collage paper gainea. 65 x 50 cm.



Abecedario II, 2019
Pintura eta collage paper gainea. 65 x 50 cm.



Dardara III, 2019. Galdatutako eta soldatutako altzairu herdoilgaitzezko elementuak, egurra eta pintura. 56,5 x 37 x 35 cm.





Ikuspegi orokorra



Bikote, 2019
Burdina. 44 x 39 x 38 cm.



Bikote, 2019
Burdina. 44 x 39 x 38 cm.



Ikuspegi orokorra



Dardara, 2019. Galdatutako eta soldatutako aluminiozko elementuak, egurra, iltzeak eta pintura. 60 x 60 x 64 cm.



Ikuspegi orokorra



Titulo gabe, 2019. Egurrezko eraikuntza, altzairu galvanizatua eta pintura. 85 x 120 x 46 cm.



Titulo gabe, 2019.
Egurrezko eraikuntza, altzairu galvanizatua eta pintura. 85 x 120 x 46 cm.



Titulo gabe, 2019.
Egurrezko eraikuntza eta altzairu galvanizatua. 85 x 80 x 45 cm.



Titulo gabe, 2019.
Egurrezko eraikuntza eta altzairu galvanizatua. 85 x 80 x 45 cm.



Ibiltari, 2019
Galdatutako eta soldatutako altzairu herdoilgaitzezko elementuak eta pintura. 92 x 24 x 28 cm.



Ibiltari, 2019. Galdututako eta soldatutako altzairu herdoilgaitzezko elementuak eta pintura. 92 x 24 x 28 cm.







Sólido, 2019
Burdina eta pintura. 58,5 x 47 x 18 cm.



Sólido I, 2019
Pintura paper gainean. 100 x 70 cm.



Sólido II, 2019
Pintura paper gainean. 100 x 70 cm.

Dardara I, 2019
Altzairua, egurra, burdina, feltroa eta pintura. 91 x 40 x 40 cm.





Ikuspegi orokorra





Bikote (zuria), 2019
Egurrezko eraikuntza eta pintura. 62 x 52 x 34 cm.



Bestiario III, 2019
Aquarela paper ganean. 40 x 30 cm.



Bestiario II, 2019
Aquarela paper ganean. 40 x 30 cm.



Bestiario IV, 2019
Aquarela paper ganean. 40 x 30 cm.



Bestiario V, 2019
Aquarela paper ganean. 40 x 30 cm.




Ikuspegi orokorra



Saludo (paisaje), 2019
Egurrezko eraikuntza eta pintura. 40 x 23 x 24,5 cm



Saludo, 2019
Egurrezko eraikuntza eta pintura. 40 x 23 x 24,5 cm



Ibiltari (naranja), 2019
Galdatutako eta soldatutako aluminiozko elementuak. 24 x 40 x 23 cm.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725